



IZENA EMATEA

Izena **ONLINE** emango da, Sarbidea aplikazioa erabilita. Eskatzaile bakoitzaren eskariaren egoera aplikazio horretan kontsultatu beharko da, egutegian aipatutako argitaratze egunetan.

Izena emateko hiru epe egongo dira, egutegian aipatuak eta **master bakar bat** aukeratu ahal izango da izena emateko epe bakoitzean.

Izena emateko epea behin amaituta, ezingo da aldatu eskaria, ezta ere aurkeztutako dokumentazioa. Baina izena emateko hurrengo epeetan aldaketak egin ahal izango dira.

Izena emateko bigarren eta hirugarren epeak irekiko dira onartuak izan zitezkeen pertsonen zerrenda agortuta eta oraindik plazak bete gabe dituzten masterretarako. Era berean, ireki ahal izango dira itzarote zerrendan pertsonak izan arren plaza guztiak beteko ez dituztela uste duten masterretarako, betiere behar bezala justifikatzen badute hori Graduondoko Ikasketen Zerbitzuko Master eta Doktorego Atalean. [Unibertsitate Masterren webgunean](#) argitaratuko da izena emateko bigarren eta hirugarren epeak izango dituzten masterren zerrenda.

Interesdunak master bakar batean agertu ahal izango dira izena emateko epe bakoitzean. Izena emateko 2. eta 3. epeetan edonork har dezake parte, betiere ez badu erreserbatu plazarik; hau da:

- 2024/2025 ikasturterako lehenago izena eman ez dutenak.
- Izena emateko epe berria irekitzean lehenago aukeratu zuten masterraren itzarote zerrendan daudenak. Halakoetan, baliogabetu egingo da lehenagoko aukera.
- Izena emateko aurreko epe baten onartuak izan baina plaza erreserbatu ez zutenak. Halakoetan ere, baliogabetu egingo da lehenagoko aukera.
- Baztertuak izan direnak ez betetzeagatik aurreko epean aukeratutako masterrean onartuak izateko baldintzak.

Itzarote zerrendan norbait daukaten masterren kasuan, izena emateko beste epe bat irekitzen bada, **itzarote zerrendakoak egongo dira irekitako epean izena emango duten pertsonen aurretik eta lehentasuna izango dute onartuak izateko**, nota dena delakoa izanda. Master berri baterako izena emango dutenak ez dira sartuko. Izena emateko epea behin amaituta, hurrengo epean sartuko dira.

Itzarote zerrendan norbait izan arren izena emateko beste eperik irekiko ez duten masterren kasuan, plazak esleitzen jarraituko dute izena emateko epea amaitu ondoren, itzarote zerrenda amaitu arte. Horretarako, onartuen eta itzarote zerrendan daudenen egoera berriak argitaratuko dira plaza erreserbatzeko epea amaitu eta bi egunera, eta hiru laneguneko epea egongo da plaza erreserbatzeko. Master horiek izena emateko epe bakoitzean



eguneratuko dute itxarote zerrenda, eta eperen batean beste mater bat aukeratu duten pertsonak zerrendatik kenduko dira.

IZENA EMATEKO AURKEZTU BEHARREKO **DOKUMENTAZIOA**

A. Espainiako unibertsitateetako ikasleak eta tituludunak

1. NAN (nortasun agiri nazionala), AIZ (atzerritarren identifikazio zenbakia, Espainian bizi diren pertsonen kasuan) edo pasaporte (nahitaezkoa, UPV/EHUko ikasleak salbu). Europar Batasuneko ikasleek kasuan kasuko herrialdeko nortasun agiria ere aurkeztu ahal izango dute.

2. Masterrean sartzeko baldintza espezifikorik badago (hizkuntzak jakitea eta abar), baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa (nahitaezkoa, baldintza horiek dituzten masterren kasuan).

3. % 33ko desgaitasuna edo handiagoa egiaztatzen duen dokumentazioa, organo eskudunak emana (nahitaezkoa, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plaza batean onartua izateko).

4. Nahi izanez gero, dokumentu gehiago aurkeztu ahal izango dira: curriculum vitae, lanak, artikulak, argitalpenak, hizkuntzen agiria, gomendiozko gutuna, etab.

5. Gradu ikasketak amaituta izanez gero:

- Espainiako unibertsitate titulu ofiziala edo hori eskatu izanaren agiria (nahitaezkoa, UPV/EHUko ikasleentzat izan ezik).
- Masterrera sartzeko bidea ematen duen tituluko espediente akademiko ofiziala, non agertuko diren irakasgaiak, deialdiak eta kalifikazioak (nahitaezkoa, UPV/EHUko ikasleentzat izan ezik). Dokumentu hori jatorrizko unibertsitateko agintari akademikoek eman eta izenpetu beharko dute, eta zigilua jarri. Ez dira onartuko web orrien bidez sortutako dokumentuak, balio akademikorik gabeak (nahitaezkoa, UPV/EHUko ikasleentzat izan ezik).

6. Gradu ikasketak amaitzeke izanez gero:

Ikasleak izena eman ahal izango du eta modu baldintzatuan izango da onartua, ondoren aipatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko baitu masterraren ardura duen ikastegian matrikula egiteko epearen barruan:

- Baldintzapeko matrikula onartzen ez duten masterrak: graduako titulua lortzea.
- Baldintzapeko matrikula onartzen duten masterrak: gehienez ere 9 kreditu gainditzeke eta/edo Gradu Amaierako Lana egiteke graduako titulua lortzeko. Edozelan ere, matrikula egitean lehentasuna izango dute graduako titulu ofiziala daukaten ikasleek. Ezin izango dute, baina, inola ere unibertsitateko master titulua eskuratu aurretik eskuratu ez badute horretarako bidea ematen dien gradu titulua.

Ez badituzte betetzen aipatutako baldintzak matrikula egiteko epearen barruan, onarpena baliogabetu egingo da.

Baldintzapeko matrikula onartzen duten eta onartzen ez duten masterren zerrenda prozedura honen I. Eranskinean agertzen da, eta masterren webgunean emango da argitara.

Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Espediente akademiko ofiziala, non agertu beharko diren gaitutako irakasgaiak, deialdiak eta lortutako kalifikazioa, bai eta gaitutako kredituak eta kasuan kasuko titulazioak eskatutako kredituak (nahitaezkoa, UPV/EHUko ikasleentzat izan ezik). Ez dira onartuko web orrien bidez sortutako dokumentuak, balio akademikorik gabeak.
- Erantzukizunpeko adierazpena (nahitaezkoa):
 - Baldintzapeko matrikula onartzen ez duten masterren kasuan ikasketak amaitu izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.
 - Baldintzapeko matrikula onartzen duten masterren kasuan, ikasketak amaitu izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, ikasleak uste badu matrikula egiteko epearen barruan amaituko duela gradua; edota baldintzapeko matrikularako betebeharrak betetzearen erantzukizunpeko adierazpena, gradua epe horren barruan amaitzeko 9 kreditu gaitutzea eta/edo GRALA egitea falta zaiola dioena.

Erantzukizunpeko adierazpena egiteko ereduak prozedura honen II. Eranskinean agertzen dira.



B. Europako Unibertsitate Eremuko unibertsitateetako tituludunak

A ataleko 1-4 zenbakietan aipatutako dokumentuez gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Kasuan kasuko herrialdean masterreko ikasketetan sartzeko bidea ematen duen unibertsitate titulu ofiziala, edo titulua eskatu izanaren agiria, eta tituluaren zinpeko itzulpena EAEko hizkuntza ofizial batean (euskara edo gaztelania). Agiri horiek ingelesez badaude ez da beharrezkoa zinpeko itzulpena.

Izena eman ahal izango da ikasketak amaitu gabe izan arren, baina ikasketak amaitu izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da (II. Eranskina). Halakoetan, onarpena baldintzatua izango da, eta titulua lortu ondoren egiaztatu egin beharko da, matrikula egiteko epearen barruan, masterraren ardura daukan ikastegian. Hala egin ezean, onarpena balio gabetu egingo da.

2. Masterreko ikasketetan sartzeko bidea ematen duen espediente akademiko ofiziala eta espedientearen zinpeko itzulpena, EAEko hizkuntza ofizialetako batean (euskara edo gaztelania). Agiri horiek ingelesez badaude ez da beharrezkoa zinpeko itzulpena. Espedientean agertu beharko dira irakasgaiak eta lortutako kalifikazioak. Dokumentu hori jatorrizko unibertsitateko agintari akademikoek eman eta izenpetu beharko dute, eta zigilua jarri. Ez dira onartuko web orrien bidez sortutako dokumentuak, balio akademikorik gabeak.

3. Atzerriko zentroetan egindako unibertsitate-ikasketen batez besteko noten balio kidetasun-ziurtagiria, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak emana, telematikoki eska daitekeena helbide honetan:

<https://www.universidades.gob.es/equivalencia-de-notas-medias-de-estudios-universitarios-realizados-en-centros-extranjeros/>

Aurkezten ez bada, batez besteko nota 5 izanen da.

4. Aurkeztutako dokumentazioan berriaz adierazten ez bada aurkeztutako titulazioak aukera ematen duela kasuan kasuko herrialdean masterreko ikasketetan sartzeko, hori egiaztatzen duen dokumentu bat aurkeztu beharko da. Dokumentu hori bi hauetako bat izan daiteke:

- a) Jatorrizko unibertsitatearen ziurtagiria, non adieraziko den egindako ikasketek herrialde horretan master bat egiteko aukera ematen duten.
- b) Ikasleak idatzi eta sinatutako agiria, non adieraziko diren informazioa egiaztatzen duten iturriak (webguneak, etab.), bai eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela dioen zinpeko adierazpena ere.



C. Europako Unibertsitate Eremutik kanpoko unibertsitateetako tituludunak

A ataleko 1-4 zenbakietan aipatutako dokumentuez gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Unibertsitate titulu ofiziala, edo titulua eskatu izanaren agiria, eta zinpeko itzulpena EAEko hizkuntza ofizial batean (euskara edo gaztelania), legeztatua/Hagako zigiluarekin. Agiri horiek ingelesez badaude ez da beharrezkoa zinpeko itzulpena.

Izena eman ahal izango da ikasketak amaitu gabe izan arren, baina ikasketak amaitu egingo direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da (II. Eranskina). Halakoetan, onarpena baldintzatua izango da, eta titulua lortu ondoren, matrikula egiteko epearen barruan, egiaztatu egin beharko da masterraren ardura daukan ikastegian. Hala egin ezean, onarpena baliogabetu egingo da.

2. Masterreko ikasketetan sartzeko bidea ematen duen espediente akademiko ofiziala eta espedientearen zinpeko itzulpena, EAEko hizkuntza ofizialetako batean (euskara edo gaztelania). Agiri horiek ingelesez badaude ez da beharrezkoa zinpeko itzulpena. Espedientean agertu beharko dira irakasgaiak, ordu kopurua eta lortutako kalifikazioak. Dokumentu hori jatorrizko unibertsitateko agintari akademikoek eman eta izenpetu beharko dute, eta zigilua jarri. Ez dira onartuko web orrien bidez sortutako dokumentuak, balio akademikorik gabeak.

3. Atzerriko zentroetan egindako unibertsitate-ikasketen batez besteko noten baliokidetasun-ziurtagiria, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak emana, telematikoki eska daitekeena helbide honetan:

<https://www.universidades.gob.es/equivalencia-de-notas-medias-de-estudios-universitarios-realizados-en-centros-extranjeros/>

Aurkezten ez bada, batez besteko nota 5 izanen da.

4. Titulu hori eman den herrialdean aurkeztutako tituluak unibertsitateko graduondoko ikasketak egiteko aukera ematen duela egiaztatzen duen agiria. Dokumentu hori bi hauetako bat izan daiteke:

- a) Jatorrizko unibertsitatearen ziurtagiria, non adieraziko den egindako ikasketek herrialde horretan master bat egiteko aukera ematen duen.
- b) Ikasleak idatzi eta sinatutako agiria, non adieraziko duen informazioa egiaztatzen duten iturriak (webguneak, etab.), bai eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela dioen zinpeko adierazpena ere.

Ikasle horiek onartuko dira Graduondoko Batzordeak baimena ematen badie UPV/EHUn masterrak egiteko. Baimen horrek ez dauka zerikusirik



onarpen prozesuarekin. Halakoetan, eskaria aurkeztu ahal izango da unibertsitate masterrean izena emateko epea baino lehenago, UPV/EHUren webgunean argitara emango den prozedurari jarraikiz: <https://www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak/ikasle-atzerritarrak-onarpena>. Izena emateko unean ikasleak ez badu eskatu edo lortu oraindik aipatutako baimena, modu baldintzatuan segitu ahal izango du onarpen prozesuan; baina ez badu lortzen baimena matrikula egiteko egongo den epearen barruan, onarpen eskaria bertan behera geratuko da. Baimena emateko prozesuari automatikoki ekingo zaio, interesdunak izena ematen badu baimen hori eskatu gabe edo izan gabe. Graduondoko Batzordeak erabakiko du ematen dion ala ez baimena interesdunari masterrak egiteko UPV/EHU. Izan ere, interesduna masterrean onartua ez izan arren, beste master batzuetarako eta beste ikasturte batzuetarako erabili ahal izango du baimen hori. Batzordeak baimena ematea erabakiz gero, jakinaren gainen jarriko da interesduna. Dena den, baimen horrek ez dauka zerikusirik master jakin batean onartua izateko gutunarekin, hori egitea ikastegiei dagokie eta. Ikastegiak ezin du matrikulatu UPV/EHU masterrak egiteko Graduondoko Batzordearen baimena ez daukan inor.

Salbuetsi egiten da Osasun Psikologia Orokorreko Masterrean sartzeko aurreko atalean aurreikusitako Graduondoko Batzordearen baimena, UPV/EHUko Psikologia Fakultatean egiten den prozedura propio baten bidez arautzen da, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2023ko azaroaren 16ko Ebazpenak, Unibertsitate Kontseiluaren Akordioa argitaratu zuenak, CNU Aginduan (1305/2018) ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze gomendioak ezartzen dituenak.

D. Atzerriko titulu homologatua daukaten tituludunak

Espainiako unibertsitateetako tituludunentzat ezarritako prozedurari jarraituko diote, eta A ataleko 1-5 zenbakietan aipatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

ONARPENA

Izena emateko epea amaituta, masterretako batzorde akademikoek eskariak aztertuko dituzte, egiaztatze gomendioak betetzen dituzten onarpen prozesuan segitzeko baldintzak edo, aldiz, baztertuak izan behar diren masterrera sartzeko eta/edo onartuak izateko baldintzak ez betetzeagatik. Unibertsitate masterrean sartzeko baldintzak eta/edo onartua izateko baldintza espezifikoak betetzen ez dituzten eskaerak ezetsi egingo dira (memoria egiaztatuen arabera), bai eta masterra hasi aurreko ikasturtean zehar



baldintzak betetzeko moduan egongo ez direnak ere. Bestalde, sarrera nota esleitu behar diete baldintzak betetzen dituztenei.

Baldintzak bete arren baztertuak izan direnen behin-behineko informazioa SARBIDEAN ikusi ahal izango dute interesdunek, egutegian aldi honetarako zehaztutako egunetan: BAZTERTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEA (MASTERRERA SARTZEKO ETA/EDO ONARTUAK IZATEKO BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIK).

Zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera behin-behineko zerrenda horren kontra erreklamazioak jartzeko epea irekiko da, hiru egunekoa. Erreklamazioak ikastegian aurkeztuko dira.

Baldintzak bete arren baztertuak izan direnen behin betiko informazioa SARBIDEAN ikusi ahal izango dute interesdunek, egutegian aldi honetarako zehaztutako egunetan: BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEA (MASTERRERA SARTZEKO ETA/EDO ONARTUAK IZATEKO BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIK).

Zerrenda hori argitaratuta, plazak esleitu eta erreserbatzeko prozesuari ekingo zaio.

Onartutako eskariei eta itxarote zerrendari buruzko informazioa SARBIDEAN ikusi ahal izango dute interesdunek, egutegian aldi honetarako zehaztutako egunetan: ONARTUEN ZERRENDA ETA ITXAROTE ZERRENDA ARGITARATZEA.

Data horretatik aurrera, onartutako pertsonen plaza erreserbatu beharko dute hiru laneguneko epearen barruan. Hala egin ezean, onarpena baliogabetu egingo da eta plaza horiek libre geratuko dira.

Plaza erreserbatzeko, matrikularen aurrerakin gisa finkatutako zenbatekoa ordaindu beharko dute, esperimentaltasun indizea 3 duten Unibertsitate Masterren prezio publikoaren %15ari dagokiona. Plaza erreserba gisa ordaindutako zenbatekoa matrikularen zenbateko osotik kenduko da eta ordainketa hori egin ezean, egindako plazaren erreserba galduko da. Plaza erreserbatu eta gero matrikula formalizatzen ez bada, matrikula ez formalizatzeke arrazoia azkenean sartzeko eta/edo onartzeko baldintzak ez betetzea denean izan ezik.

Itxarote zerrenda eta plazak bete gabe (erreserbatzeke) dituzten masterren kasuan, ez bada irekitzen beste eperik izena emateko, plazak esleituko dituzte itxarote zerrenda amaitu arte. Interesdunek SARBIDEAN ikusi ahal izango dituzte esleipen berriak, plaza erreserbatzeko epe bakoitza amaitu eta bi egunera (lanegunak baino ez dira zenbatzen). Hiru laneguneko epea egongo da berresteko, itxarote zerrenda amaitu arte.



MATRIKULA

Egutegian adierazitako epeen barruan, Masterra atxikita dagoen ikastegiak bere webgunean adierazitako egunetan.